



TREBAKUNTZA 2011/04: PUNTUAZIOA II (KOMA)

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Itzulpengintza juridiko administratiboa, hizkuntza normalizaziorako ahaleginen ondorioa da.
2. * Ilart Orue, arkitektoak adierazi du obra garaiz amaituko dutela.
3. * Izan ere bilera-deia berandu iritsi zitzaien hautetsiei.
4. * Bihar azaroak 10 kiroldegia itxita egongo da.
5. * Ez da indarrean jarriko dekretua sinatuta egon arren.
6. * Arkitektoaren txostenak ordea ez du gauza bera esaten.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Komak pausa laburra adierazten du. Honako kasuetan erabiltzen da batik bat:

- **Enumerazioetan.** Esaldian funtzio bera duten segidako elementuen artean eta tarteko lokailurik ez dagoenean:

Isabel, Miren, Ane eta Sara ikusi nituen bart.

- **Perpau konplexuetan,** menpeko esaldia eta nagusia bata bestearen segidan datozenean, tartean inolako lotura-hitzik gabe.

Ez dio deitu arduradunari, behin baino gehiagotan esan diogun arren.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behe
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



- Esaldiaren hari nagusia hausten duten osagaietan, baita **aposizioetan** ere.

Etxepare, lehen euskal idazlea, Sarrasketan jaio zela uste da.

- Deiki edo **bokatiboa** (norbaiti edo zerbaiti deitzeko erabiltzen den hitza) bereizi behar denean.

Aizu, Edurne, zatoz lehenbailehen!

- Ondoko terminoek ere koma behar dute: **hau da, hots, esate baterako, azkenik, hala ere, adibidez, dena den, izan ere, beraz...**

Selektibitatean nota ona ateratzeko, ordea, asko ikas behar izan zuen.

Ez jarri koma bakarri subjektuaren eta aditzaren artean.

** Edorta, bihar goizean itzuliko da lanera.*

**Itzulpengintza juridiko-administratiboa, hizkuntz normalizaziorako ahaleginen ondorioa da.*

Hala ere, betegarri edo osagarria sartuz gero, badaukagu subjektuaren eta aditzaren artean komak jartzea.

Edorta, dena ondo badoa, bihar goizean itzuliko da lanera.

Itzulpengintza juridiko-administratiboa, lehen esan bezala, hizkuntz normalizaziorako ahaleginen ondorioa da.

Beraz:

1. Itzulpengintza juridiko administratiboa hizkuntza normalizaziorako ahaleginen ondorioa da.
2. Ilart Orue arkitektoak adierazi du obra garaiz amaituko dutela.
Ilart Orue **k**, arkitektoak **k**, adierazi du obra garaiz amaituko dutela.
3. Izan ere **l**, bilera-deia berandu iritsi zitzaaien hautetsiei.
4. Bihar **l**, azaroak 10 **l**, kiroldegia itxita egongo da.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



5. Ez da indarrean jarriko, dekretua sinatuta egon arren.

6. Arkitektoaren txostenak, ordea, ez du gauza bera esaten.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org